



arranbela

baztango ezker abertzalea

ERDIZ eta TOKIKO EKONOMIA

Erdizeko bazkaleku komunalaren inguruan, aldiro, MAGNAREN mehatxua dabil. Eztabaida horretan, hainbat eragilek, aldika, ageriko interes pertsonalak tarteko, MAGNAREN atarabide ekonomiko gisa aurkezten dute, erranez, nolabait, gaur egun Erdizek ez duela inongo errendimendu produktiborik. Eta hori, faltsua da; zeren, gaur egun Erdizek, Baztanen aitzinamendurako oinarrizkoa den nekazaritzari sostengua ematen baitio.

Aurtengo datuen arabera, ekainaren hasmentan 56 baserritarrek beren aziendak Erdizen sartu zituzten, dena 485 behi. Urtean barna, gainera, bertze 33 baserritarrek 465 ardi eta 207 zaldi-behor sartu zituzten. Denera, 89 nekazari horietatik 50 sektoreko profesionalak dira eta hortik ateratzen dute bizimodua, hortaz, Erdiz, nahitaezkoa da beren eguneroko ogia irabazteko. Baina gainerako baserritar ez profesionalak ere behar- beharrezkoak ditu Baztanek. Zeren, **Baztango baserritarrei esker, alde batetik, baserriak bizirik jarraitzen dute eta beren aktibitate produktiboa iraunarazten; eta, bertzetik, beren lanarekin inguruak mantentzen dituzte: bideak, belaiak, iralekuak...** Eta beraien aktibitatearen ganean, bertze gisako enpleguak sortzen dira: **albaiteroak, makineria saltzaile eta konpontzaileak, teknikoak...** Guzti horrek herrietako bizitza atxekitzen laguntzen du eskolak adibidez, eta nekazariak dira, konparaziora, balleko denda eta komertzioak gehiago erabiltzen dituztenak. Baserriak iraunaraziz, halaber, hari loturiko eta gure nortasunaren zati den kultura atxekitzen da. Gainera, jatekoak produzitzen dituzte. Azken urteetan aberastasun faltsu batek buruak zopatu

dizkigu, atzendurik, bizia jatekoetatik hasten dela; ba, hori bera eskaintzen dute hemengo baserritarrek, jatekoak. Bertzalde, Loizu hiltegiaren oinarriturik proiektu publiko enpresarial bat egin nahi bada horretarako beharrezkoak dira baserritarrak eta beraiek produzitzen dituzten kalitatezko haragiak. Erran dugunez, baserritarrek ingurua mantentzen dute eta Baztango oraingo paisaia, turistek hainbertze estimatzen duten hori bera, nekazariak sortu eta zaintzen dute; hortaz, nekazaritza ere, turismoa garatzeko nahitaezkoa da. Ikusi daitekeen moduan, **Erdizek zuzenean eta zeharka tokiko ekonomia sozial, hurbilekoa eta banatua laguntzen du. Horren aldean, MAGNAREN harrobizarrak, hemen aipatu ditugun guztiak desegite bidean paratuko lituzke.** Horren adibidea Eugin pasatu dena da, orain 40 urtetik dago MAGNA bertan, eta berrogei urtetan bertako aktibitate produktibo guztiak desagertu dira, atarabide bakar gisa MAGNA gelditu artio. Guztiz menpekoa den ekonomia eredu horren aitzinean, Baztango interes orokorraren eta etorkizunaren ikuspegitik, Erdizeko bazkaleku komunala iraunaraztea behar-beharrezkoa dela begibistakoa da.



2- KRISIARI ALTERNATIBAK BAZTANDIK

3- MURRIZKETAK SALATZEAGATIK UPNK 5 BAZTANDAR ISUNDUKO DITU

3- MAGNAK ARRANBELARI EGINIKO MEHATXUEI BURUZ

4- BAZTANEK LEHEN SEKTOREKO FORMAKUNTZA ZIKLOA BEHAR DU

5- HARROBIAK, XEHAKUNTZA ETA HERRITARREN BEHARRAK

6- SORTUren EZTABAIDA ABIAN BAZTANEN

7- EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE

8- UPN KANPORA

8- BAZTANEN ERE EUSKAL HERRIKO GAZTE ANTOLAKUNDE BERRIA SORTZEKO ZUKGUA PROZESUA ABIAN

KRISIARI ALTERNATIBAK BAZTANDIK

Bizitzen ari garen krisi ekonomikoaren ondorioak gero eta larriagoak dira eta beharrezkoa da, horren aitzinean antolatzea eta krisiaren arduradunak identifikatzeaz eta salatzeaz gain, alternatibak bilatzea.

Hasteko, krisiaren zergatietan eta arrazoietan sakontzen ez duen ekimena ez da inondik ere baliagarria. Ez badakigu krisia zergatik eta nortzuk sortu duten, proposamenek segur aski honeraino ekarri duten bide bera errepikatu bertzerik ez dute egiten. Hortaz, apolitikoak diren inizatibekin kasu, helburua krisiaren arduradunekin bat egitea izan daitekeelako. Erne modu berean ardura guztia kasta politikoari egozten diotenekin, egiazko boterea ekonomikoa da eta oligarkia finantziario eta industrialak du, burgesia handiak hain zuzen.

Bertzalde, krisia ez da ekonomikoa soilik. Krisiak alde aunitz ditu; ekologikoa dela bistakoa da eta energetikoa ere bai; zaintzena, elikagaiena, baloreena... era bada. Katakarak egiten ari den sistemaz ari gara. Hemendik ze aterako den ez dakigu, baina norbaitek aitzineko mendeko 90. hamarkadarat itzul-tzearekin amets egiten badu, makur dabil.

Horrela gauzak balizko alternatiba baten lanketan oinarri bat eta bi jardun-eremu desberdindu behar dira. **Alternatibak herritar eta langileen aldekoa izan behar du, oligarkiaren esplotazio eskemarekin hautsi beharra dago. Oligarkia ekonomikoa aspaldi ari da herrien eta langileen kontra, bada ordua herriak eta langileak oligarkia-aren kontra antolatzen.** Horri klase borroka deitzen zaio eta hori oinarria da. Oligarkia esplotatzaile eta suntsitzaile horrek ez gaitu salbatuko.

Bertzalde, norbaitek pentsa badezake krisiaren kontrako alternatiba Baztandik soilik planteatu daitekeela, oker egoteaz gain, herritarrak eta langileak engainatzen ari da. **Alternatibak estrukturala izanen den eremubatu beharko den, iruzurraren kontrako borroka, zerga-sistema progresiboaz, lan produktibo eta erreproduktiboaren banaketaz, eredu sozioproduktiboaz, inbertsio politikotaz, produkzio bitartekoekin jabegoaz... Egituran aldaketa sakonak egin gabe ez da alternatiba errealik egonen.** Horretarako herriak eta langileak antolatu eta gehiengo sozial eta politikoak eraiki behar

dira, herritarren interesen aldeko indar harreman berria eraiki. Zentzu horretan nazio eta klase zapaldu gisa Euskal Herriak eta euskal langile herriak burujabetza ekonomikoa nahi eta nahiezkoa dute. Eta horretarako grebetan parte hartu beharra dago, mobilizazioetan, protestetan, bozketetan...

Bigarren jardun eremua lokala da. **Herri mailan langabeak, emaztekiak, baserriarrak, xaharrak, etorkinak, gazteak, prekarizatuak, sindikalistak, Erdizen aldeko mugimendukoak, Aroztegiako proiektu xehatzailearen kontrakoak, kultur elkarreetakoak, talde sozialetakoak, laguntza emaile taldeetakoak... elkartzeari beharrezkoa da, krisiaz eta alternatibetaz solastatu eta eztabaidatzeko gune autonomo bat eraiki eta klase eta genero ikuspegitik nazio, klase eta pertsona gisa menperatzen gaituzten ardatz desberdinak kontuan hartuta xinurri lana egiteko.** Krisiaren zergatiak argitu eta krisiaren ondorio larrienak arintzeko elkartasun sareak egituratu behar dira. Eta horrekin, eredu sozioekonomiko alternatibo baten oinarriak adostu eta Baztandeko eta eskualdeko markoan garatuko diren ekonomia sozialeko esperientzia produktiboak aktibatzeneko dinamika sortu. Horren arrimuan, udal mailako dinamika instituzionala abiatu beharko litzateke. Jakinik enplegu eta ekonomia politikak Nafarroako Gobernuarenak direla, udalak herriko eragileekin eztabaida eta mintzakidetzak espazioa sortu beharko luke. **Beti ere soluzio miragarriak ez dela zerutik etorriko ongi jakinda, baina herritarren antolakuntzak eta udalaren inplikazioak bidea egiteko aukera ere ematen duela.** Horren baitan eskualde mailako gogoeta egin beharko litzateke, eskualdearen garapenerako ze egitura behar den gogoetatu beharko litzateke. Komunitatearen aitzinamendurako eredu justuago, sozialago eta iraunkor bat nahi badugu, horren markoa nahi eta nahi ez eskualdea izanen da. Eskualde klabeen pentsatzen hasi beharra dago; lokalismo itsuak, ez baikaitu inorat eramanen, ez bada sektore ekonomikoa arrunt interesatu batzuek bilatzen duten aterabiderik gabeko ataka esturat.

Ez badakigu krisia zergatik eta nortzuk sortu duten, proposamenek segur aski honeraino ekarri duten bide bera errepikatu bertzerik ez dute egiten.

Oligarkia ekonomikoa aspaldi ari da herrien eta langileen kontra, bada ordua herriak eta langileak oligarkiaren kontra antolatzen.

MURRIZKETAK SALATZEAGATIK

UPNk 2 BAZTANDAR ISUNDUKO DITU



Elizondoko besten bezperan Baztango UPNk gonbidatuta Yolanda Barcina Nafarroako presidentea herrira etorri eta plaza inguruan zeuden ehunka herritarrek murrizketen aurkako protesta inprobisatu zuten. Biharamunean protestarengatik foruzainek bi salaketa jarri zituztela erran zuen prentsak eta, **azaroaren hasieran, salaketen jakinarazpenak iritsi dira; denera, baimenik gabeko kontzentrazioa egiteagatik 450 euroko bi isun eskaera.** Elizondoko bestetako protesta krisiaren testuinguruan UPNren Nafarroako Gobernuaren mozketek sortu duten haserre sozialaren testuinguruan eman zen, horrela, egun horietan, **Tuteran bapateko bertze protesta jasan behar izan zuen Barcinak; baina iduriz, salaketak, mendialderat eta eremu abertzaleetarat iristen dira soilik, UPNk digun herraren bertze adibidea.** Beti ere Elizondoko bapateko protestarengatik jarri dituzten salaketekin murrizketen eta herritarren kontrako erreforma basatien aurkako herritarren **protesta ixilarazi nahi dute.** Bankuak eta gobernua herritarren aurka aliatu dira eta UPN eginkizun horretan aitzindari ageri zaigu, hainbertze urtetan urineztatutako jarrera errepresiboarekin arazo eta protesta sozialak ixiltzeko borondate garbiarekin. Horren aitzinean herritarren arteko elkartasuna bulkatu beharra dago, uztailan salaketen berri izan bezain fite egin zen moduan. Modu berean, murrizketa eta erreforma basati hauei herritarren antolaketa gero eta sendoagoarekin erantzun behar zaie, baina protestaz harago, beraiek proposatzen diguten alternatiba miserable, xehatzaile eta esplotatzailea gaindituko duen eredu sozioekonomikoa eraikitzeko eztabaida elikatuz.

**Barcina-UPN kanpora!
 Aldaketa sozial eta
 politikoa behar dugu!**

MAGNAK ARRANBELARI EGINIKO MEHATXUEI BURUZ

Arranbelaren webguneak www.adesarrollobaztan.com MAGNAK erregistratu zuela hedatu eta salatu zuen, borondate oneko jendeak Baztango Garapenerako Elkartean gibelean nor dagoen ohartaraziz. Alta, salaketa egin, eta **MAGNA harroki eta matoi baten moduan Arranbelaren webgunearen aurka zakartu zen adieraziz Arranbelak errandakoa faltsua zela eta lege-ekintzak hasteko eskubidea beretako gordetzen zuela nahiz eta web dominioaren erregistro historialean dena argi agertzen den.** Ba ustezko lege-ekintzekin komunikazio proiektu ezkertiar eta abertzalea ixilarazi nahi badute makur dabilta. Botere ekonomikoa, MAGNA kasu honetan, gizarte osoa menpean kontzera ohituratu da: gobernua, politikariak, komunikabideak, jendeen kontzientzia... Orrialde osoko publizitateak kontratatuko dituzte, kirolak patrozinatuko, Garapenerako Elkartek sortuko... Eta, horrela soberan duten DIRUarekin jendea erosiko.

Ba Arranbelak herriko interesen alde egiten du eta ez da saltzen. **Oraingo miseriarat ekarri gaituen egitura ekonomiko, politiko, mediatiko eta soziala zein den azaltzen saiatzen gara eta langileen, herrien eta lurraren kontrako dominazio egitura hori nola egituratzen den agertzen jarraituko dugu.** Komunikazio egitasmo honen ibilbide laburrean ikusi izan dugunez indarrean den botere egituraren dako deserosoak gara eta aldiro mehatxuekin ari zaizkigu, bistan denez, ez da xamurra horrelako presiopean lanean aritzea, baina dominazio aparatuari kontra egiteak ordain gisa hori dakar.

Horrela gauzak, Arranbelak bere herri komunikazio proiektuan inoiz baino gehiago konprometitu bidenabar, **bertze behin www.adesarrollobaztan.com MAGNAK erregistratu zuela berresten dugu.** Bai, horrela da. Eta guzti honek zera erakusten digu: **MAGNAK nahasmendura jokatzen duela, gezurretan ibiltzen dela eta orain gainera mehatxuka dabilela.**

**Horrelako enpresak
 Baztanen nahi ditugu?**

BAZTANEK LEHEN SEKTOREKO FORMAKUNTZA ZIKLOA BEHAR DU

Krisi honek oinarrian duen eredu sozioekonomikoaren bideraezintasuna erakutsi du eta herritarrok antolatzen ez bagara oligarkia ekonomiko-politikoak eta tokiko beren morroiek gurekin akituko dute. **Egoera honetan baztandarrok gure orainarekin eta etorkizunarekin konpromiso saihestezina dugu, denen artean herritarren gehiengoaren aldekoa izan den ekonomia sozial bat eraikitzeko eta eredu sozioproduktibo berri bat eratzeko.** Baztango Ezker Abertzaletik uste dugu eredu sozioproduktibo horren oinarrian lehen sektore indartsu eta berritu bat egon behar duela zeinean, guttienez populazio aktiboaren %15a ariko baiten. Zerbaki hori ez dugu hutsetik atera, 2001eko zentsuan populazio aktiboaren %14 bertan ari zela aipatzen baitzen, baina hori bai, adin-egitura arras zahartuarekin. Gure ustez, portzentai hori bermatu eta **sektorea gaztetu beharko litzateke, horrela, lehen sektore berritu eta indartsu horren gainean eraldaketa eta banaketa azpiegitura-ekonomikoa eraikitzeko, betiere, jabego sozialeko esperientziak lehenetsiz: kooperatibak, enpresa publikoak, enpresa sozialak...** Guzti horren osagarri moduan zerbitzu arlo desberdinak antolatu beharko lirateke: albaitariak, aholkulariak, teknikariak.... Ezbairik gabe lehen sektoreak hartu beharko lukeen zentraltasunarekin bat bertze arlo batzuk garatu beharko lirateke: sozio-sanitarioa, bertako beharretara egokitutako eraikuntza, energia berriztagarriak, hondakinen kudeaketa, turismoa, zerbitzu arlo desberdinak...

Lehen sektorea, Baztanen, Europako Nekazal Politiken eta Nafarroako Gobernuaeren inizatiben ondorioz arrunt gainbehera etorri da, gainera elikadura-industriak eta banatzaile handiek bulkaututa, merkaturan eta lehia gogorrean

oinarritzen den eredu intentsibo eta industrial bulkatu dute nekazari ttipiak ito ber-tzerik egiten ez dituen eta sektore guztia desegin. Baina Baztanek eta Euskal Herriak nekazaritarik gabe ez du gerorik, nekazariak jatekoak egiten dituztelako eta jatekoek bizia ematen dutelako. Gaur egun Txileko edo Alpeetako sagarrak jaten ditugu, urruneko esneki eta barazkiak; haragi gehienak edozein txokotatik ekarritakoak dira... **Baztanek dituen baliabide naturalak kontuan hartuta eta bertan nekazaritzak izan duen garrantzia, Baztani eta inguruko hiriguneei - Iruñerria eta Behe Bidasoa- begiratuko dien lehengaien eta eraldatutako elikagaien produkzio sistema herritar eta soziala eraiki behar dugu.** Horretarako behar-beharrezkoa dugu Baztanen eredu sozioproduktibo horren zerbitzurat egonen den nekazal formakuntza ziklo baten ezarpena: jendea profesionalki prestatuko duena, inizatibadun eginen duena eta ekimen kooperatiboetarako gaituko duena, betiere lurarenanako errespetuan haziak eta, bistan denez, euskaraz.

Aipatu nekazal formakuntza zikloa bide luze bateko pausu bat bertzerik ez da; hala, hamarnaka urtetan oraingo krisirat ekarri gaituen sistema muntatu bade, bertze eredu sozioproduktibo bat abiatzeko ere urte andana beharko dugu eta pazientzia era bai; hortaz, garrantzitsuena, norat joan nahi dugun jakitea da. **Baztango Ezker Abertzaleak bide horretan Baztanen nekazal formakuntza zikloa jartzeko eztabaida pizteko eginahalak eginen ditu.** Baztanen garapenean estrategikoa den gaia den aldetik, eztabaida Baztan mailan eman beharko litzateke.

Egin dezagun bidea!

Baztango Ezker Abertzaletik uste dugu eredu sozioproduktibo berriaren oinarrian lehen sektore indartsu eta berritu bat egon behar duela zeinean, guttienez populazio aktiboaren %15a ariko baiten.

Behar-beharrezkoa dugu Baztanen eredu sozioproduktibo horren zerbitzurat egonen den nekazal formakuntza ziklo baten ezarpena: jendea profesionalki prestatuko duena, inizatibadun eginen duena eta ekimen kooperatiboetarako gaituko duena, betiere lurarenanako errespetuan haziak eta, bistan denez, euskaraz..

HARROBIAK, XEHAKUNTZA ETA HERRITARREN BEHARRAK

Urteetako bazterketa, desinbertsio eta politika ekonomiko neoliberalen ondorioz Baztan ere, inongo egitura produktiborik gabe utzi dute. Orain, aterabide ia bakar gisa, harrobiak bertzerik ez dizkigute aurkezten eta, horrela, **Baztanen, bortz proiektu berri airean dabilta**. Harrobien edo meategien gaia baloratzeko komenigarria da aipatutakori, gogoe-tarako bertze elementu batzuk gehitzea. Horietako bat, milaka urte direla jendeak beren beharretarako lehengaiak ateratzeko harrobi edo meategiekin hasi zirela. Horrekin batean, azpimarratzekoa da ere, edozein harrobi edo meategi inguruari buruz interbentzio erasokorra dela, bazterrak xehatzen eta desagerrarazten baititu, nahiz eta gero berreskuratzeko planak egin. Hala-ber, **harrobi proiektuaren inguruan bizitzarik ba ote den baloratzeko bertze aspektu bat izan daiteke, ze bertze jarduera egiten diren, inguru horren balio ekologikoa, legea betetzen ote duen; guzti horiei ere, lanpostuak eta errentagarritasun ekonomiko irizpideak eransten ahal zaizkio...** Bistan denez irizpide guztiak ez daude maila berean eta, horien artean mailaketa bat egitea beharrezkoa litzateke.

Harrobien edo meategien gaia zentzu komunitik aztertuta eta planteamendu arrazional minimo batetik harrobi horren erabilgarritasun sozialaren ikuspuntutik hasi beharko litzateke, izan ere, erran dugunez, ezabaketa fisikoa suposatzen duen jarduera bati buruz ari baikara. Etxeak zaharberritzeko lehengaiak ateratzeko harrobia, baserrietako pistetarako materialak emanen dituen, etxe aski ez dagoen herrian etxe berriak egiteko, beharrezkoak diren errepide, karrika eta urbanizazio lanak egiteko eta moldatze-ko... Guzti horietarako harrobi edo meategiak beharrezkoak lirateke-

ela onartu beharko genuke. Hortaz, lehendabiziko pausu hori emanda, ondotik tokirik egokiena bilatu beharko litzateke: inguruan bizitzarik ote dauden, ze bertze jarduera dauden, tokiaren balio ekologikoa... jakinik beti konponbide idealik ez dagoela eta erabaki guztiak ere eztabaidagarriak direla eta kaltetuak utziko dituztela. Baina badira bertze gisako harrobi eta planteamenduak ere, adibidez: **etxe hutsak nonahi izanik, etxe berriak egiteko beharrezkoa den materiala ateratzeko harrobiak egitea ongi legoke? Edo bat ere errentagarritasun sozialik ez duten proiektuetarako: Itoizko urtegia (166 milioi euroko kostua), Nafarroako Kanala (400 milioiko aurrekontua), Pirinioko autobidea (310 milioi)... edo Abiadura Handiko Trena (Nafarroako korridore osoaren aurrekontua 3.150 milioiko da, 2012an 134 milioi bideratu zituzten, inbertsioetarako aurrekontu osoaren %47)... Horietarako bazterrak xehatzea onar-tzen ahal da?** Bistan da, azkeneko hauen kasuan xehakuntzak ez duela inongo behar sozialik asetzen, ekonomia eredu erogarri eta sun-tsigarria bazkatu bertzerik ez du egiten; hori bai, eraikuntza enpresa handiak eta horietako administrazio kontseiluak eta akziodunak diru publikoarekin aberastu bidenabar oraingo krisirat ekarri gaituen egitura produktiboa erreproduzituz. Eta, ez bairik gabe, paradisu fiskaletan gorderik dituzten diruak sektore horien errekonbertsioa egiteko erabili beharko lirateke. Modu horretan, pentsa istant batez, **Elizondoko saihesbidearen 14 milioi euroko kostu erreala zergatik ez dute inbertitu Baztanen ikuspegi luzeko egitura produktiboa sortzeko? Zertarako eta norendako erabiltzen dute diru publikoa? Hori da eztabaidaren muina.**

Horrela gauzak, bistan da, krisialdi betean eta enplegu suntsiketaren eta langabezi hazkorraren testuinguruan edozein proiektu, burugabeena eta xehatzaileena ere, premia sozial horretaz inoiz baino gehiago kutsatzen da; eta horrek, eztabaidari bertze dimentsioa eman badiezaioke ere, sakoneko gogoeta ez du aldatzen. Xehakuntza hutsa eta inbertsio publiko burugabeak ez dira onartzen ahal.

Akitzeko, azken kontu bat, egitasmo hauen inguruan kaltetutako herrietako batzarreek edo herritarrek dute erabakia hartu beharra. Eta erabaki-hartze prozesuko eztabaidan, etorkizun hobetagoa eta zentzuzkoagoa nahi badugu aipatutako ideia guzti horiekin eragin beharko da.

Harrobien edo meategien gaia baloratzeko komenigarria da gogoetako bertze elementu batzuk gehitzea: lehengai ateratzekoak direla, inguruari buruz interbentzio erasokorra dela, tokirik egokiena ote den baloratu behar dela (inguruan bizitzarik ote dauden, ze bertze jarduera dauden, tokiaren balio ekologikoa...). Baina sakoneko gogoeta ez du aldatzen. Xehakuntza hutsa eta inbertsio publiko burugabeak ez dira onartzen ahal.

SORTUren EZTABAIDA ABIAN BAZTANEN

Zer izanen da Sortu.

- Euskal Herri osoko ezker independentisten bilgune politikoa. Euskal Herri askearen alde lanean eta borrokan diharduten independentista eta sozialisten Herritar Batasun historikoaren adierazpen politiko berria.
- Antolakuntzaren ikuspuntutik Sortu "Zutik Euskal Herria" ebazpenaren adierazpen politiko zehatza da. Beraz, Euskal Nazio Askapen Mugimenduaren ondarea eta, aldi berean, Zutik Euskal Herriak ekarri zuen eztabaida estrategikoan egindako eguneratzea jasotzen dituen antolakundea da Sortu.

Prozesuaren abiapuntua

- Aurtengo udaberrian abiatutako prozesua da.
- 300 bat lagunek parte hartu du prozesuaren lehen fase honetan, eskualdeka eraturako lan taldeetan. Kontraste prozesu bat izan da, ideia nagusien inguruan.
- Jasoriko ekarpen eta emendakin guztiekin osatu dira eratze prozesurako erabiliko diren ponentziak.

Egutegia

Orain abiatuko da eratze prozesua bere horretan. Herriz herri egingo dira eztabaidak eta bozketak. Herrialdez herrialde, Gipuzkoako 71 herri eta auzoetan burutuko da prozesua, Bizkaiko 110etan, Arabako 49etan eta Nafarroako 63etan. Orotara, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 293 herritan.

- **Azaroaren 17an**, adibidez, Oinarri Ideologikoen inguruko eztabaida egin zen Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Ondoko batzarrak ere toki berean eta goizeko 10etan egingen dira.
- **Abenduaren 15ean**: Ildo Politikoaren ingurukoa.
- **Urtarrilaren 26an**: Antolaketa eredua eta funtzionamenduari buruzkoa
- **Otsailaren 9an**: Barne hauteskundeak
- **Otsailaren 23an**: Sorturen Kongresua. Sortu martxan izango da %100.

Kongresuaren ondorenerako utzi da Komunikazioari dagokion atalaren eztabaida, bertan parte hartu nahi duten militante guztien artean egiteko.

Sorturen eratze prozesua **NAZIONALA** izanen da. Ipar Euskal Herrian ere orain abiatu dute militantziaren arteko ponentzien banaketa, eta amaiera ere Kongresu berean bat egingen dute, nahiz tarteko eztabaiden datak desberdinak izan Ipar eta Hego EHn.

Batzarren metodologia

- Parte-hartzailea izanen da.
- Oinarri ideologikoak eta antolakuntza eredua biltzen dituen dokumentua jada banatua dago, Baztanen ia 200 banatu ditugu. Ildo politikoa eta Komunikazioa biltzen dituen asteotan iritsiko da herri guztietara. -Herrietan lan-taldeak sortu dira eta sortzen dihardute batzarretan parte-hartzea sustatzeko eta baita Sorturen barne antolaketan ere parte hartzeko.
- Herri batzarren metodologia ere talde txikien bidezko eztabaidan oinarrituko da, gero guztien arteko eztabaida eta bozketa orokorra egiteko.

Lehen eztabaida: Oinarri Ideologikoak

- Erran bezala, Sorturen eratze prozesuari azaroaren 17an egin ziren eztabaidekin hasiera eman zaio, Oinarri Ideologikoen eztabaidarekin hain zuzen. Lehen eztabaida honen helburua, sortu nahi den indar politiko independentista eta sozialista berriaren perfil politiko-ideologikoa zehaztea izan da.
- Horrela bada, SORTUren eztabaidan parte hartuko duten pertsona guztien artean indar politiko berriak, bertzeren artean, independentzia, sozialismoa, euskara, ekologismoa, feminismoa, internazionalismo, aniztasuna... nola ulertzen duten finkatu da.
- Lan hori bideratzeko, txostenean egiten den proposamenari hobekuntzak edota ekarpen alternatiboak egiteko aukera izan dute batzar irekietan parte-hartu duten lagunek. -Ekarpen horiek batzarretan bertan sakondu eta bozkatu dira eta onartuak izatekotan, datorren otsailaren 23an burutuko den I. Kongresuan onartuko den behin betiko ponentzian jasoko dira..

Gonbidapena

- Bere burua ezker independentistatzen duenak eta Zutik EH ebazpenaren edukiak bere egiten dituen edonork; lehenago ezker abertzaleko kidea izan, ala ez, dute SORTUren eratze prozesuan parte hartzeko aukera.
- Gure deialdia beraz, bere burua ezker independentistatzen duten lagun horiei, euskal Herrian independentzia eta sozialismoa eraiki nahi duten gizon eta emakume orori, gazte zein helduei, Sortu prozesuan parte hartu dezaten.
- Prozesu herritarra burutu nahi dugu, eta horretarako herritarrekin batera egingen dugu.

EUSKALPRESOEN ESKUBIDEEN ALDE



Pasa den Azaroaren 10ean, Euskal Herriko jendarteak altu eta garbi erran zuen berriro ere, euskal preso eta iheslari politikoen egoerak konponbidea behar duela. Herrira mugimenduak deituta eta "HURBILDU BAKERA" lelopean 15.000 lagunek txiki utzi zituzten Baionako kaleak, azkeneko urteetan hiri honetan egin den manifestaziorik haundienetarikoa burutuz.

Euskal preso eta iheslari politikoak Euskal Herria eta espainiar zein frantziar estatuen arteko gatazka gogor eta luzearen ondorio izanik, ezinbertzekoa zaigu heuren egoerari irtenbidea bilatzeko urratsak ematen hastea, herri honetan Bakea eta normalizazioa lortze aldera. Euskal Herrian, bake bidean urrats erabakiorrak ematen ari diren arren, estatuek ez dute deus egin aitzinerat pausoak emateko eta egoera honi irtenbide demokratiko bat emateko. Are gehiago, orain arteko bide beretik jarraitu dute, errepresioaren bidetik hain zuzen ere. **Iraganeko neurriei iltzatuta jarraitzen dute, garai berriak oztopatuz. Elkarrizketa eta giza eskubideen errespetua ukatzen dituzte, nahiz eta hauek konponbiderako oinarrizko elementuak izan. Horiek horrela, ehunka preso, iheslari eta senideek gatazkaren ondorio bortitzak jasaten jarraitzen dute.**

Argi dago espainiar zein frantziar gobernuek espetxe politika erabiltzen dutela konponbidea galarazteko, egoera okertuz eta enfrentamendua eta tragedia bilatuz. Preso eta iheslarien egoerak lehengoan jarraitzen du. Iheslariari dagokionez, jazarpenaren ondorioz ezkutuan bizitzera behartzen dituzte eta iheslari aunitzek ez dituzte oinarrizko bizi baldintza duinak bermaturik.

Presoei dagokionez berriz, beraien kontra ezarritako salbuespen neurriek indarrean jarraitzen dute, bizi arteko zigorra (Parot dotrina deiturikoa), edo preso gaixoak kartzelan mantentzea kasu, eta baita sakabanaketak ere. Gaur egun 605 pertsonak osatzen dute Euskal Preso Politikoen Kolektiboa. Hauetatik soilik 7 Euskal Herriko espetxetan daude. Gehienak espainiar estatuan daude: 443; Frantziar estatuan: 132. Horrekin batera Ingalaterran 3 preso eta Ipar Irlanda, Eskozia eta Portugalen preso bana daude. Euskal Herrian 11 pertsona etxean preso daude eta Italian beste bat egoera berdinean. Azkenik, Frantziar preso bat Autun-en konfinatua dago. 605 preso hauetatik 13 gaixotasun larriak pairatzen dituzte, 68k bizi osorako zigorra aplikatua dute eta 145 presok 2/3ak bete dituzte.

Baztango egoerari dagokionez, aipatu nahiko genuke Iñaki Erro eta Joxemiel Gazteluren egoera. Iñaki Erro 25 urte darama kartzelan. 2011ko Otsailaren 20an zigor osoa bete zuen, baina 2006ko Maiatzaren 6an bizi arteko zigorra (Parot doktrina deiturikoa) ezarri zioten, horrela 2017a arte kondena luzatuz. Gainera aurtengo urtarrilaren 18an Almeriako ospitalean ingresatu behar izan zuten, bertan, "kardiopatia istemiko larria" diagnostikatu zioten. Bihotz kateterismoa egin eta 3 stent jarri zioten. **Iñakik kondena osoa bete izan arren eta larriki gaixo egon kartzelan mantentzen dute. Joxemiel Gaztelu berriz, 15 urte darama preso. Gaur egun Algezirasen dago etxetik 1200km-tara.** Lehen aipatu dugun bezala, gobernuek ez dute preso eta iheslarien egoerari irtenbidea bilatzeko borondate politikorik, alderantziz, **mendekuan oinarrituak sufrimendua areagotzen duten muturreko egoerak**

bilatzen dituzte (losu Uribetxeberria kasu).

Gobernuak heuren posizio estatikoetatik mugitu daitezene, ezinbertzekoa da herri aktibazioa. Herri presioaren bidez hurrengo eskaerak betearaztera behartu behar ditugu estatuak.

- Salbuespen neurriekin akitzea
- Preso gaixo larriak askatzea
- Bizi arteko zigorra bertan behera uztea
- Kondena osoa bete dutenak kaleratzea
- 2/3ak bete dituztenak kaleratzea
- Sakabanaketarekin akitu eta euskal presoak euskal herrira ekartzea dagozkien eskubideen jabe.

Hortarako, astero ortziraletan burutzen dugun elkarretaratzean parte hartzera gonbidatzeaz gain, hurrengo hilabeteetan izanen diren bi hitzordu garrantzitsuetara animatu nahi zaituztegu.

Abenduak 31, 8etan,
Elizondoko plazan:
URTE ZAHARREKO
ELKARRETARATZEA

Urtarrilak 12:
DENOK BILBORA!!



Arranbela
baztango ezker abertzalea



BAZTANEN ERE EUSKAL HERRIKO GAZTE ANTOLAKUNDE BERRIA SORTZEKO ZUKGUA PROZESUA ABIAN

Herriz herri abiatu dugun gazte prozesua da ZukGUA. Prozesu honen bitartez **gazte antolakunde bat sortu nahi dugu, independentziaren aldeko eta ikuspegi ezkertiarreko gazte osatuko dena**. Jatorria, udan barna egindako hausnarketa eta harreman dinamikan dago. Herriz herri gazteok antolatzekeo dugun beharraz hausnartu eta ideia hau partekatzen igarotako hirlabeteen ondotik aterako ondorioa da.

Gazte antolakunde baten beharra dagoela argi dugu, orain zer nolako antolakunde nahi dugun, zehaztu behar dugu. Hortik izena beraren izana ere. **Norbanakotik (ZUK, gutako bakoitzak) kolektibora (GU, osatzen dugu). Guztion ekarpena beharrezkoa baita egiazko gazte antolakunde anitz eta zabal bat osatzeko, guztion zaporea eta guztion grina**. Baina, ez hori bakarrik, izan ere, kolektibo garen heinean, gazte modura kezka, arazo eta bizi ikuspegi

propio bat dugulako, prozesua berak guretako ere aberasgarria izanen da (gozatu, ikasi, landu, eztabaidatu, partekatu, harremandu...ko garelako).

Modu horretan, Euskal Herriko hainbetez herritan bezala, Baztanen ere prozesu hau aitzinerat eramateko lanean egon gara. Uda aldean Baztango gazteei, egin behar genuenaren berri eman genien. Beti ere gurekin lan egitera gonbidatuz. Iraila bukaeran Zarautzen, Euskal Herri osoko gazteak bildu ginen, prozesuaren aurkezpen nazionala egiteko. Bertan joko eta dinamika desberdinen bitartez gure artean elkar ezagutu ginen, giro gozo eta atsegin batean.

Aurkezpenaren ondotik, **Baztanen prozesuari ekin genion**. Prozesua hiru zatitan banatzen da. Lehenengoa munduko ikuspegia aztertzean datza, bigarrena Euskal Herriko egoera eta

azkenekoa, guretzako garrantzitsuen dena, **gazte antolakunde berriaren nondik norakoak eztabaidatu eta erabakitzea**.

Eztabaida hauek lantzeko, lehenik gaia aztertzekeo dinamika batzuk egiten ditugu. Dinamika hauek arras dinamikoak eta praktikoak izaten dira, bideoak, jokoak, artikuluak... Hauek norberaren hausnarketatik, besteen ikaskuntza aberastera bideratuak daude (zukGUA). Ariketa hauen ondotik potentzia batzuk lantzen ditugu eta hauei ekarpenak egiten dizkiegu, beti ere dinamiketan landutako edukietan oinarrituz. Horrela, Euskal Herriko gazte guztien artean gazte erakunde berri sortu arte.

**ANIMATU ETA PARTE HARTU GAZTE!
Aunitz dugu errateko.**

(Informazio +: www.gaztezukgua.info)

UPN, zer egin duzue Nafarroako Kutxarekin?

Barcina, zer pasatu da Pejenauteren ustezko diru zuriketarekin?

Sanzberro, murrizketak batzueendako eta zesantiak bertzeendako?

UPN zergatik inposatu nahi duzue Espainiako bandera Baztango udalean? Bazterrak nahasteko?